

Orain dela berrogeite hamiru urte izandu zen gerra bat oso haundia. Ta hantxen ere tokatu zitzaiden, hasi eta akabatu artio, gerran.

Donostitik hasi nitzen, eta Norte akabatu zen, Asturias, Gijón ta hantxen ni nabillela nere lagunekin, gerra izugarrie zen, asko hiltzen zen, gerra handia zen, ta jendeak debozio haundia zuen erreztzeari, ta nik asko lagunekin erreztatzen nuen arratsetan ixillik arrosarioa.

Eta, batallonian, batallona da... primera compañía, bigarna, hirugarna eta lau izaten dire, ta hortan manatzen du komendantiak, ta primera compañía, berris, itten du kapitanak, ta batallon batian, berris, komendantiak. Pues, hala, nere lagunekin erreztatzen nuen arrosarioa, ta batallon batean apez, kapellan bat izaten giñuen, ta kapellan hore enteratu zen nik nere lagunekin erreztatzen nuela ixillik arrosarioa, ta egun batian joan zitzaiden apez hori neregana:

- Enteratu naiz, Inazio, zuk oso ongi erreztzauzule arrosarioa, eta badakizu abantzean ari garelaik eztezaketela zelebratu, beño nonbait ere, basuan edo herrian gelditzen garelaik, edo hiru lau egun hartzen balin battugu han zelebratzautela, ta nik nahi nuke zuk, ni zelebratzen hastian zuk arrosarioa erreztatzea.

Ta esan nion:

- Gusto haundiekin iñen du pa. Pues, bihar berian, hamarretan, meza hasiko dut, eta zuk arrosarioa erreztati bihar duzu nere meza denboran.

Ta gero banuen Autzeko emakume neskai (?) batek, paper bat, oso gerra akabatzeko arrosarioa ondoan hore leitzeko man tzirena, oaiñik ere makume hore bizi de, battu hiru alaba eta seme bat, oaiñik bizi de. Hori arrosarioan ondoan itten nuen, gerra agudo akabatzeko, oso ederki zen. Ta hala itten nuen. Eta lemiziko hasi nitzelaik, komendantia nere atzean zen bere asistenteakin, ta asistenteai erran zion:

- Hori nor da arrosarioa erreztatzen ai dena? Ta:

- Hori? Inazio.

- Eztut uste Inazio dela.

- Bai, pues Inazio da ba.

Akabatu nuelaik, eta orazio hore, arrosario ondoan gerra akabatzeko akaatu nuelaik yustu-yustuan, ni nitzen, ta erran ziren komendantiak:

- Inazio, uste nuen zu etziñela, asistenteari esan nion zu etziñela, beño zu, orain in behauzu, badakizu abantzean eztuela apezak zelebratzen, beño abantzean eztugulaik, herrion batean gelditzen garelaik lau edo zortzi egun, egunero in behauzu arrosarioa errezatu, eta gero, batallona geldi-geldi gaudelaik, nik paratuko dut... korneteroak paratuko du ixillik batallona eta zuk errezati ihar duzu altabozakin arrosarioa.

- Eztaba, komendantia, gusto haundiekin errezatuko dut.

Ta halaxen errezatzen nuen. Pues, halaxen ba, errezatzen nuen, komendante horri izena zitzaion Valeriano Ollo, eta gero, berris, apeza ematen ziren, berris paratzen ziren atsaldetan, harrek atsaldeko seietan eta nik arratseko zortzietan. Ta harrengana jende guti joaten zen arrosariora, beño neregana, soldadu guziek, denak, joaten ziren, eliza bete-bete-betea jende joaten ziren neregana, ta kantatu re itten nuen, ta esaten nioten soldadu hoiei:

- Badakizie holako kantue kantatzen?

- Bai bai, badakigu, etzara geldituko kantatu gabe.

Ta elize airian edukitzen giñuen kantuen. Apezai gustatzen zitzaion hori, harrek ezpaitzakizkien kantu hoiek, harri gustatzen zitzaion. Esaten ziren egun betian:

- Inazio, zuregana joaten da arrosarioa errezatzauleik eliza bete-bete-betea jendea, ta neregana gutxi. Orduen in behar duu kanbiatu: zuk atsaldeko seietan ta nik arratseko zortzietan.

Ta harrengana, igual, joaten zen guti atsaldeko seietan, ta neregana berris, bueno... arratseko zortzietan harrengana gutxi, eta atsaldeko seietan neregana eliza bete-bete-betea jende joaten zen, eta esan ziren:

- Zuk kantu asko badakizu eta zuregana joaten dire soldadu guziek kantatzera ta arrosarioa errezatzera, beño ni horregatik kontent nago, zuregana joaten direla jende guziek.

Ta halaxen ba, akabatu zen nortea, Gijon, Asturiasen, ta batallona ixil-ixille paratu zuen korneteroak eta komendantia daitu ziren: "Inazio Astiasaran!". Ta joan nitzen ta esan ziren :

- In behaizut pase bat Donostire joateko hillebete bateko. Etzoazile inora re. hemendik bi ordun buruen pasea iñik

edukikot, eta berriz korneteroak ixillik paratuko du batallona, eta main dizut pasea.

Ta halaxen ba. Bi orduen buruen... Ba nuen bertze lagun bat Erbitikoa, Miel Aldatz zitzaiena, eta harrei esan nion, ez bainakien nora eman behar ziren Donostien, erran nion nere lagunotxorrei (?):

- Aaag! naho nuen man balire komendante horretxek itxera joateko, ez Donostire.

- Beño -esan ziren lagun horrek- beño erran dizu batallon guzien aurrian Donostire, ta Donostire yoan beharkozu ba!.

Ta halaxen ba, berris ere bi ordun buruen daittu ziren, paratu zuen korneteroak batallona ixillik, eta abisatu: "Inazio Astiasarán!", ta presentatu nitzen.

- Hemen daukezu pasia Donostire joateko, hemen daukezu nere kotxa, ta nere asistentea, ta honek emain dizu Donostira, beño, abertitzeizut, etzoazile gero itxera. Ikuskozu, nik esateizut egie, zer hillebetia pastukozun Donostien.

Horixen aberttitu ziren:

- Hemen daukezu nere kotxa, ta hemen daukezu nere asistentea, honek emain dizu Donostire.

Ta, gaue zen, Donostire allatu nitzena gaue zen. Ta pertsona... allatzean kusi _____, honei galdein behar diot nora presentati ihauten. Gazte bat, gizon bat gaztea. Saludetu nuen ba: hementxen heldu naiz ba, soldadue... el soldao descanso, ta oain nik eztakit nora presentati ihauten. Gizon horretxek esan ziren:

- Neretako, diru askokin gauze guti. Beño zuretako, Donostian dagon gauze guzie. Zer egunek pasti ihaittuzun! Dena zuretako dao.

Ni harriturik gelditu nitzen.

- "Nik emain dizut hotelera, zer hoteletan gelditi ihauzun, nik emain dizut hoteleraño".

Gero gosarie berriz, zuleta bat zartai betekoa, eta peskao merluze, ta gauza asko yan ez zezakena, maten zireten, ta bazkarie, asko gauze nik ezautzen eznituenak ematen zitireten. Atratzen nitzen kanpora, eta denetan, bar guzietan: "Zer nahi duzu hartu? dena libre daukezu, denetaik, zuretako dena libre dao. Eztuzu ja ere pagati ihar. Ta han denetaik bainauken,

enioten barretan iñor ja ere enioten hartzen. Gero hotel hortan esan zireten:

- Inazio, hemeretzi, hillebetian hemeretzigarrenian, etorri ihar du Jeneralisimo Franko, ta harrekin afaldi ihauzu. Beño etzaitela... piskoat lotsatuko zara, beño etzaitela lotsatu. Trankilo! Jereralisimo torri ihar duela, harren ondoan trankilo! batre lotsatu gabe, afaldu. Afarie haundie izein de egun hartan. Halaxen ba, torri zen egun hemeretzigarna, eta torri zen Jeneralisimo Franko bere andriakin eta alabakin. Ta mahai betian eskota, berrehun jende beño gehiago, asko, etorri ziren harrekin, eskota haundia, ta Jeneralisimon ondo-ondoan, nik afaldu nuen, hore... mahai berian, eta nik harrei beire, andriai, semia ta alaba.

Harrek esan zirena zen:

- Afaldi ihauzu, Inazio... ni Jeneralisimo Franko naiz, beño trankil, itxan zure aittekin te amakin zauden bezala afaldi ihauzu, trankilamente, ni ez naiz zure aitte beño gehiago.

Hoixen zen hitze, eta:

- Nik nahi dut asko jatea.

Halaxen, bederatzieta hasi giñen afaltzen, eta goizeko hiruetan oaiñik afaltzen ai giñen. Egun hartan ez giñen joan... enitzen joan ez zinera, ta ez teatrora, beño Jeneralisimo Franko alleatu beño lehen, zinen zer pasatzen zen eta teatroan zer atra behar zuen esan zireten komedorian. Ta halaxen ba, hillebete bat pastu nuen.

Hace cincuenta y tres años hubo una guerra muy grande. Y allí que me tocó ir a mí, del principio al final, a la guerra.

Salí de San Sebastián, y se acabó el Norte, Asturias, Gijón y allí andaba yo con mis compañeros, la guerra era tremenda, morían muchos, era una gran guerra, y la gente tenía mucha devoción por rezar, y yo con muchos compañeros, en voz baja, solía rezar el rosario al anochecer.

Y en el batallón, un batallón es... primera compañía, segunda, tercera y suelen ser cuatro, y en eso manda el comandante, y en la primera compañía, en cambio, el capitán, y en un batallón, en cambio, el comandante. Conque solía rezar el rosario con mis compañeros, y en un batallón, el cura, un capellán que solíamos tener, y ese capellán se enteró de que yo solía rezar con mis compañeros el rosario en voz baja, y un día me vino a hablar el tal cura:

- Me he enterado, Ignacio, que tú rezas muy bien el rosario, y ya sabes que cuando estamos avanzando yo no puedo celebrar, pero que celebro cuando nos detenemos en alguna parte, en el bosque o en un pueblo, o si nos tomamos tres o cuatro días, y a mí me gustaría que tú, cuando yo empiece a celebrar, rezaras el rosario.

Y yo le dije:

- Pues lo haré con mucho gusto.

- Pues mañana mismo, empezaré a decir misa y tú tienes que rezar el rosario mientras digo la misa.

Y luego yo tenía una mujer de Auza, que me había dado un papel, para leerlo después del rosario para que se acabara del todo la guerra, esa mujer todavía vive, tiene tres hijas y un hijo, todavía vive. Eso lo solía hacer después del rosario, para que se acabara pronto la guerra, estaba muy bien. Y así lo hacía. Y cuando empecé la primera vez, el comandante estaba detrás de mí con su asistente, y le dijo al asistente:

- ¿Quién es ese que está rezando el rosario?

- ¿Ese? Ignacio

- No creo que sea Ignacio

- Sí, pues es Ignacio.

Cuando acabé, y nada más acabar aquella oración después del rosario para que se acabara pronto la guerra, era yo, y me dijo el comandante:

- Ignacio, creía que no eras tú, le he dicho a mi asistente que no eras tú, pero tú, ahora, ya sabes que cuando estamos avanzando el cura no celebra, pero cuando no estamos avanzando, cuando nos paramos en algún

pueblo cuatro u ocho días, tienes que rezar todos los días el rosario, y después, cuando el batallón estamos quietos, yo pondré... el cornetero pondrá en silencio al batallón y tú tienes que rezar el rosario por el altavoz.

- Por supuesto, mi comandante, lo rezaré con mucho gusto.

Y así lo rezaba. Pues así era la cosa, lo rezaba, ese comandante se llamaba Valeriano Ollo, y después, el cura me llevaba otra vez, me ponía otra vez por las tardes, él a las seis de la tarde y yo a las ocho de la noche. Y a él le iba poca gente al rosario, pero a mí, todos los soldados, todos venían, toda la iglesia a reventar de gente me venía, y también solía cantar, y les decía a los soldados:

- ¿Sabéis cantar tal canción?

- Sí, sí, sí la sabemos, no te quedarás sin cantar.

Y solía tener a la iglesia encantada con mis canciones. Al cura le gustaba aquello, porque él no se sabía aquellas canciones, le gustaba. Me decía un día:

- Ignacio, a ti, cuando rezas el rosario, te va mucha gente, tienes la iglesia a reventar de gente, y a mí me vienen pocos. Así que tenemos que cambiar: tú a las seis de la tarde y yo a las ocho de la noche.

Y con él igual, iba poca gente a las seis de la tarde, y conmigo, en cambio, bueno... a las ocho de la noche con él pocos y a las seis de la tarde conmigo venían muchos, la iglesia a reventar de gente, y me dijo:

- Tú sabes muchas canciones y contigo van todos los soldados a cantar y a rezar el rosario, pero a mí eso me da alegría, que toda la gente se vaya contigo.

Y en esto se acabó el frente del Norte, en Gijón, Asturias, y el cornetero puso en silencio total al batallón y el comandante me llamó: ¡"Ignacio Astiasarán!". y fui y me dijo:

- Te voy a hacer un pase para irte un mes a San Sebastián. No te vayas a ningún lado. Dentro de dos horas, tendré el pase ya hecho, y otra vez el cornetero pondrá el batallón en silencio, y te daré el pase.

Y así. Al cabo de dos horas... Yo tenía otro compañero de Erbiti, que se llamaba Miguel Aldatz, y le dije a él, como no sabía a dónde me iba a llevar en San Sebastián, le dije a aquél compañero mío:

- Aaag! Este comandante, mejor me hubiera hecho el pase para irme a casa, no a San Sebastián!

- Pero -me dijo aquél compañero- pero te ha dicho delante de todo el batallón que a San Sebastián, y a San Sebastián te tendrás que ir pues!

Y así que, otra vez al cabo de dos horas me llamó, el cornetero puso al batallón en silencio, y avisó: "Ignacio Astiasarán", y me presenté.

- Aquí tienes el pase para ir a San Sebastián, aquí tienes mi coche y mi asistente, y este te llevará a San Sebastián, pero, te lo advierto, no se te ocurra irte a casa. ya verás, te digo la verdad, qué mes vas a pasar en San Sebastián.

Eso fue lo que me advirtió:

- Aquí tienes mi coche y aquí tienes mi asistente, este te llevará a San Sebastián.

Era de noche, cuando llegué a San Sebastián era de noche. Y la persona que ví al llegar, a este le voy a preguntar a donde tengo que presentarme. Era un joven, un hombre joven. Así que lo saludé: aquí vengo yo, el soldado... el soldado descanso, y ahora resulta que no sé a dónde tengo que presentarme. aquél hombre me dijo:

- para mí, con mucho dinero, poca cosa. Pero para ti, todo lo que hay en San Sebastián. ¡menudos días vas a pasar! Todo está para ti.

Yo me quedé asombrado.

- Yo te llevaré al hotel, al que te quieras quedar, yo te llevaré hasta el hotel.

Después el almuerzo: un chuletón que se salía de la sartén, y de pescado merluza, y muchas cosas que yo no podía comer, me las daban, y la comida, me daban muchas cosas que yo no conocía. salía afuera y en todas partes, en todos los bares: "¿Qué quieres comer? todo está para ti, de todo, para ti todo es gratis. No tienes que pagar una peseta. Y como tenía de todo allí, no les cogía, en los bares no les cogía nada denada. después me dijeron en aquél hotel:

- Ignacio, el diecinueve, el día diecinueve del mes, va a venir el generalísimo Franco, y tienes que comer con él. Pero no... te dará un poco de vergüenza, pero que no te de. Tranquilo! Que va a venir el generalísimo Franco, pues tú tranquilo. A cenar sin que te de ninguna vergüenza. Aquél día habrá una cena muy grande. Conque llegó el día diecinueve y vino el generalísimo Franco con su mujer y su hija. Y en una mesa la escolta, mas de doscientas personas, muchos, vinieron con él, una gran escolta, y yo justo al lado del generalísimo, cené... en la misma mesa, y yo de frente a él, frente a la mujer, el hijo y la hia.

Él me dijo esto:

Tienes que cenar, Ignacio... yo soy el generalísimo Franco, pero tranquilo, tienes que cenar como si estuvieras en tu casa con tu padre y tu madre, tranquilamente, yo no soy superior a tu padre.

Eso fue lo que me dijo:

- Lo que quiero es que comas mucho.

Así que a las nueve empezamos a cenar y a las tres de la mañana todavía estábamos cenando. Aquél día no fuimos... no fui al cine ni al teatro, pero antes de que llegara el generalísimo Franco, me decían en el comedor que ponían en el cine y que iban a sacar en el teatro. Y así pasé un mes